



BANDOA

EGIZU ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

ETXARRI ARANAZKO UDALEKO ALKATEAK animatu nahi zaitu 2013ko errenta aitorpena euskaraz egin dezazun. Zergatik?

- * Osotasunean euskaraz bizitzeko, eremu guztietara zabaldu behar dugulako gure hizkuntza.
- * Udalerri euskaldunetako herritarrok eredu garelako euskarari dagokionean.
- * Administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea eta beharra dugulako euskaldunok.
- * Errenta aitorpena euskaraz eginez, administrazioaren euskalduntzean ere eragiten dugulako.

Errenta aitorpena modu askotan egin dezakezu (autolikidazio proposamena berretsiz, era mekanizatuan, gestoria baten bidez, Ogasuneko bulegora joanda, finantza erakunde batean...). Edozein modutan egiten duzula ere, euskaraz egin dezakezu.

Etxarri Aranatz, 2014ko martxoaren 17an.
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

